

Eudelek Garapenerako Udal Lankidetzak bultzatuko du Euskal Fondoaren bitartez, hiru jardunalditan

- **“Euskadiko Garapenerako Udal Lankidetzako estrategiak” izenburupean, jardunaldiak urtarrilaren 14an, 21ean eta 28an egingo dira Bilbon, Donostian eta Gasteizen, hurrenez hurren.**
- **Zikloa (izen-ematea dohainik da) garapenerako udal lankidetzaren kudeaketa arloko udal arduradunei dago zuzenduta, eta esperientzia praktikoak ere izango ditu**
- **Ekimena Eudel eta Euskal Fondoak-ek iaz sinatutako hitzarmenaren barruan dago, eta sentsibilizazio instituzionala bultzatzeko ekintzak egitea aurreikusten du; hain zuzen ere, ekintza horiek Euskadiko Tokiko Administrazio Publikoko langileak trebatzera eta nazioarteko lankidetzaren arloko tokiko esperientziak trukatzera egongo dira bideratuta**

Bilbon, 2010eko urtarrilaren 14an. EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak, Euskadiko Toki Erakunde Lankideen Elkartearen –Euskal Fondoa– eskutik, garapenerako udal lankidetzaren arloko Prestakuntza Zikloa antolatu du. Euskadiko udalek metatutako esperientzian oinarrituta, era didaktikoan jorratuko dira toki esparrutik nazioarteko lankidetzak politika eta programen prestaketarekin erlazionatutako gaiak eta horiek inplementatzeko era desberdinak.

Ekimen honek bi erakundeen artean joan den urtean sinatutako lankidetzak akordioaren helburuetako bati erantzuten dio. Testuak sentsibilizazio ekintzak egitea aurreikusten du; hain zuzen ere, ekintza horiek Euskadiko Tokiko Administrazio Publikoko langileak trebatzera eta nazioarteko lankidetzaren arloko tokiko esperientziak trukatzera egongo dira bideratuta. Akordio hau garapenerako lankidetzaren arloan egiten dituzten ekintzak indartu, koordinatu eta osatzeko asmoarekin bi erakundeek hartutako konpromisoaren barruan dago.

Zikloa hiru jardunaldikoa izango da, eta urtarrilaren 14an, 21ean eta 28an izango da Bilbon, Donostian eta Gasteizen, hurrenez hurren. Jardunaldiak goizez izango dira, eta garapenerako udal lankidetzaren kudeaketa arloko teknikariei eta arduradun politikoei zuzenduta egongo da.

Jardunaldietan, lankidetzako udal programak egiteko oinarrizko irizpideak aurkeztuko dira, bai eta udalek zenbait arlotan dituzten esperientziak ere, hala nola, lankidetzarako senidetzeak, gizartea sentsibilizatzeko jarduerak, ekintza humanitarioa eta larrialdietarako laguntza, elkartasuna herri sahararrarekin, lankidetzako tokiko kontseiluak edo genero ikuspegia sartzea garapenerako udal lankidetzan.

Programa osoa www.eudel.es orrian kontsultatu daiteke.